

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen 2020ko otsailaren 19ko dekretua, hirugarren alkateordearen izendapenari buruzkoa**

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 125.1. artikulua honako hau xedatzen du:

Alkateak Tokiko Gobernu Batzarreko kide diren zinegotzien artetik izendatu ahal izango ditu alkateordeak, zeinek hartuko baitute haren lekua, izendapenaren hurrenkeran, kargua hutsik geratu edo alkatea kanpoan edo gaixorik bada.

Felipe García Miravalles zinegotziak kargua utzi ondoren, beharrezkotzat jotzen da hura ordeztuko duen hirugarren alkateordea izendatzea.

Horregatik, lege-arau horrek aitortzen dizkidan aginpideak baliaturik hau,

Ebatzi dut

Lehena. Udalbatza honetako zinegotzi eta Gobernu Batzarreko kide Jon Armentia Fructuoso hirugarrena alkateorde izendatzea.

Azken xedapena. Dataren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 19an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*